

# INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO ORDAINKETA BAKARREKO LAGUNTZA EKONOMIKOA

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak > Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako prestazio ekonomikoa**

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

## Norentzat

**Matxista-indarkeriaren biktima diren emakumeak.**

## Zenbatekoa

**Ordainketa bakarra**, langabezia-sorospen laguntzako 6 hilabeteren baliokidea (aldakorra)

## Baldintzak

**Biktima izaera.**

**Errolda** (6 hilabete).

**Diru-sarreraren muga.**

**Langabea** izatea.

## Zertan datza?

Prestazio ekonomikoa bikotekide edo bikotekide ohiaren genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaie, baldin eta diru-sarrerarik ez badute, langabezian badaude eta merkatuan sartzeko zailtasunak badituzte ([3.1.2 fitxa](#)). Prestazioaren helburua da tratu txarren egoeratik irteten laguntzea, eta, aldi horretan, emakumeak bere egoera egonkortzea eta berari eta bere kargura dauden pertsonen dagozkien pentsioak edo prestazio ekonomikoak izapidetzea ahalbidetzea.

## Norentzat?

**Matxista-indarkeriaren biktima diren emakumeak**, adin nagusikoak edo emantzipatuak.

## Zenbatekoa da?

**Ordainketa bakarra.** Prestazioaren zenbatekoa aldatu egiten da emakumeak bere kargura dituen pertsonen eta desgaitasuna duten pertsonen arabera. Nolanahi ere, laguntzaren erreferentea langabezia-subsidioaren zenbatekoa da, eta, oro har, sei hilabeteko laguntzaren baliokidea da.

## Bateragarria al da beste laguntza batzuekin?

**Bateraezina da helburu bera duen beste edozein prestazioarekin. Bateragarria da** Indarkeriazko Delituen eta Sexu Askatasunaren aurkako Delituen Biktimentzako Laguntzei eta Asistentziari buruzko 35/1995 Legean aurreikusitako laguntzekin, bai eta diru-sarrerren maila bermatzeko beste prestazio ekonomiko batzuekin ere.

## Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

**Erasotzailearekin bikote harremana bukatuta izatea.**

**Matxista-indarkeriaren biktima dela egiaztatzea.**

**EAEn errolatuta egotea eta bertan benetan bizitzea**, gutxienez 6 hilabeteko antzinasunarekin.

**Langabea izatea**, lan-kontraturik ez izatea.

Ez laguntza hori ez matxista-indarkeriaren **biktimentzako gizarteratzeko errenta aktiboa jaso ez izana.**

**Diru-sarrerren muga ekonomikoa ez gainditzea** (lanbide arteko gutxieneko soldataren %75).

## Non eska dezaket zerbitzua?

### Eusko Jaularitza-Matxista-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako dirulaguntzak

1. Zuzenean: Herritarrentzako aurrez aurre zerbitzua.
2. SATEVI zerbitzuan informazio espezializatua eman diezazukete -900 840 111.